

## Bestelako Xedapenak

### INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2948

EBAZPENA, 2010eko maiatzaren 13koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena; honen bidez, 2010eko ekitaldian Merkataritzako Establezimenduak Modernizatzeko Laguntza Programan ezarritako laguntzak emateko deialdia iragartzen da.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko maiatzaren 12ko Agindua bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ematen dituen laguntzen nondik norakak ezartzen dira, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten enpresek merkataritza establezimenduak modernizatzeko egindako inbertsio-proiektuak gara ditzaten.

Agindu horren 8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, bidezko da bertan finkatutako laguntzetarako deialdia egitea 2010eko ekitaldirako, eta horretarako beharrezkoak diren arauak ematea.

Aurrekoa aintzat hartuta, eta adierazitako agindua ren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

#### 1. artikulua.– Helburua.

Ebazpen honen helburua honako hau da: Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko maiatzaren 12ko Aginduan –Merkataritza Establezimenduak Modernizatzeko Laguntza Programa arautzen duenean– aurreikusitako laguntzen 2010eko ekitaldirako deialdia egitea.

Horretarako 3.682.000 euro bideratuko dira guztira, abenduaren 23ko 2/2009 Legean -Euskal Autonomia Erkidegoko 2010eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenen- hartarako ezarritako aurrekontu-kredituaren kargura.

Deialdi honen kontura emango diren laguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko artikulua honetan ezarritako zenbatekoa edo zenbateko hori eguneratetik ateratzen dena, indarreko legedian aurreikusitako kredituak lotzeko edo aurrekontuak aldatzeko erregimenari jarraiki. Beraz, zenbateko hori agortzen denean ez da laguntza gehiago emango, eta xedapen honek une horretan bertan utziko dio eraginkorra izateari. Dagokionean, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen ebazpenaren bitartez emango da bi zirkunstantzia horien berri.

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

2948

RESOLUCIÓN de 13 de mayo de 2010, de la Viceconsejera de Comercio y Turismo por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas establecidas en el Programa de Apoyo a la Modernización de Establecimientos Comerciales, para el ejercicio 2010.

La Orden de 12 de mayo de 2010 del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, establece el marco de ayudas de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco a los proyectos de inversión destinados a la modernización de establecimientos comerciales realizados por empresas radicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De conformidad a lo establecido en el artículo 8 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2010, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 8 de la Orden de referencia,

RESUELVO:

#### Artículo 1.– Objeto.

Es objeto de la presente Resolución, la convocatoria para el ejercicio 2010 de las ayudas previstas en la Orden de 12 de mayo de 2010 del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, por la que se regula el Programa de Apoyo a la Modernización de Establecimientos Comerciales.

Para este fin se destinarán 3.682.000 euros con cargo al correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en la Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010.

El volumen total de ayudas a conceder con cargo a la presente convocatoria, no podrá superar el importe consignado en este artículo o el que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente. No procederá por tanto la concesión de nuevas ayudas una vez agotado dicho importe, suspendiéndose a partir de ese momento la eficacia de la presente disposición. En su caso, de ambas circunstancias se dará publicidad mediante Resolución de la Viceconsejera de Comercio y Turismo.

**2. artikulua.**– Betekizunak.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko maiatzaren 12ko Aginduan aurreikusitako laguntzak eskuratzeko, enpresa eskatzaileek erakunde onuradun izan beharko dute, aipatutako agindu horren 3. artikuluan xedaturikoaren arabera.

**3. artikulua.**– Eskabideak eta epea.

1.– Eskabideak eta gainerako dokumentazio osagarria Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Lurralde Ordezkaritzetakoaren batean -proiektuaren kokapenaren arabera dagokionean- aurkeztu beharko dira edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako tokietan.

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Lurralde Ordezkaritzetan eskuratu ahal izango da eskabide eta formularioen eredu bat, edo bestela Interneteko helbide honetan: [www.euskadi.net/comercio](http://www.euskadi.net/comercio).

2.– Deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den egunaren biharamunean hasiko da eskaerak aurkezteko epea, eta 2010eko irailaren 30ean amaituko da, betiere alde zuzenetik horretarako kreditua agortu dela argitaratu ez bada aldizkari horretan.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

**Bigarrena.**– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 13a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea,  
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.

**Artículo 2.**– Requisitos.

Las empresas solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden de 12 de mayo de 2010 del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, deberán ostentar la condición de entidad beneficiaria, de conformidad con lo establecido en el artículo 3 de la Orden de referencia.

**Artículo 3.**– Solicitudes y plazo.

1.– Las solicitudes y demás documentación complementaria se presentarán en la Delegación Territorial de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco del Territorio Histórico donde se ubique el proyecto, o en los lugares especificados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Un modelo de solicitud y de formularios será facilitado en las Delegaciones Territoriales del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, y en la dirección de Internet: [www.euskadi.net/comercio](http://www.euskadi.net/comercio).

2.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Resolución de convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco y, en tanto no se haya publicado con anterioridad en dicho Boletín el agotamiento del crédito consignado al efecto, finalizará el 30 de septiembre de 2010.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– La presente Resolución de convocatoria surtirá efectos al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Segunda.**– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de mayo de 2010.

La Viceconsejera de Comercio y Turismo,  
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.